

Hasi da unibertsitate-master ofiziala irakasle gisa aritzeko

2009/10/05

Irailaren 28an, astelehenez, hasi zen unibertsitate-master ofiziala irakasle gisa aritzeko. Guztira **30 ikasle** arituko dira bertan, alor askotakoak: abokatuak, enpresa administrariak, ingeniariak, biologoak, filologoak... Hala ere, hiru jakintza alorretan banatu dira:

- Hizkuntza
- Giza gaiak
- Zientzia eta teknologiak

HUHEZIK antolatu du master hau irakasle gisa lan egin nahi dutenentzat, eremu hauetan: **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxillergoa, Lanbide Heziketa** eta **Hizkuntzen Irakaskuntza**.

Masterrak ikasturte bat iraungo du, **irailetik ekainera**, eta masterraren amaieran ikasle guztiak aurkeztu beharko dute **Master Amaierako Lana**. Asteazken eguneguz emango dira eskolak, asteleheneetik ostegunera bitartean, arratsaldean (15:00-20:00), eta bertan uztartuko dira saio teorikoak eta praktikoak. **Praktika** saioei dagokienez, goizez egingo dira (09:00-14:00), ikastetxeetan.

Espezialitateak eta metodologia

Bederatzi espezialitate ezarri dira master honetan, arreta berezia eskainita EAEko lan eskaintza publikoan parte hartu ohi duten irakasleei:

- Zientzia esperimentalak
- Gizarte-zientzia, Geografia eta Historia
- Matematikak
- Teknologia
- Orientazio Psikopedagogikoa eta Profesionala
- Heziketa Fisikoa eta Kirol-jarduerak
- Hizkuntza eta Literatura
- Administrazioa eta Enpresa
- Komunikazio-prozesu eta bideak

Metodologiari dagokionez, **Arazoetan Oinarritutako Ikasketak** erabiliko dira masterrean. Ikasleak kasuak aztertu, arazoei irtenbidea bilatu, eta proiektuak gauzatu beharko ditu.

